

**TERMINOLOGIA SAREAK EHUNDUZ: UNIBERTSITATEKO
IKASGELETAN ERABILTZEN DEN TERMINOLOGIA ERREALA IKUSGAI
EGITEA HELBURU DUEN PROGRAMA¹**

Itziar San Martin

(Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU)

[AURKIBIDEA](#)

Laburpena ² : Artikulu honetan euskararen normalizazioan terminologiaren garapenean eta finkapenean laguntzea helburu duen *Terminologia Sareak Ehunduz* (TSE) ekimena deskribatuko dugu. TSE programa 2008an jarri zen abian UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren laguntzarekin eta, euskararen erregistro akademikoen garapenean dauden premiak eta oztupoak identifikatu eta horiek asetzeko eta gainditzeko beharrezkoak diren pausoak emateko asmoz aritu da azken urteetan³. Arazo eta oztupoak bi iturritatik datoz batez ere. Alde batetik, euskararen normalizazio ezagatik arazoak ditugu: zenbait irakasle hizkuntza-gaitasunean dituzten hutsuneak, kode estandarraren ezegonkortasuna, terminologia falta, adituen arteko komunikazio-sare arinen falta eta hizkuntza orokorraren kodifikazioa erregistro espezializatuekin gainezartzetik datozen arazoak. Bestetik, euskararen kasuan, terminologia-lanean erabili ohi diren metodologia desegoki eta zaharkituetatik. TSE programa terminologiaren azterketarako hurbilketa berriek ezarri dituzten oinarri teoriko eta metodologikoetan sustraitzen da: terminologia-lana komunikazio-egoera akademikoetan gertatzen diren erabilera errealen deskripzioetik abiatzen da, aldakortasuna aintzat hartzen du eta, ondorioz, terminologiaren normalizaziorako aldakien harmonizazioa du jomugan, eta ez aldaki bakar baten preskripzioa. Erregistro akademikoen normalizazioaren gakoa irakasle-adituen erabileran

¹ TSE programa aurrera eramateko UPV/EHUko Euskara eta Eleaniztasuneko Errektoreordetzaren laguntza izan dugu. Horrez gain, 2011 eta 2012 urteetan Unibertsitate-Gizarte ikerketa-proiektu batean elkarlanean aritu gara Elhuyar Fundazioko eta UPV/EHUko ikertzaileak: “GARATERM-2: Linguistikoki prozesatutako corpusetatik terminologia eta neologia erazteko ingurune baten garapena” (OTRI kodea: US10/01).

² Programaren diseinua, alderdi teoriko eta metodologikoen azterketa eta egokitzapena, eta programaren hainbat lanen eta diseinua aurrera eramatea (besteak beste tresnak eta baliabideak hobetzeko, garatzeko edo programan integratzeko) programaren zuzendari Igone Zabalarri zor dizkiogu. Zuzendariaren gain, Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa saileko (lehenago Euskal Filologia saila) hainbat irakasle parte hartu dute. Eskerrik beroenak guztioi.

³ Programaren hastapenetan helburu bakarra irakasleen prestakuntza linguistikoa zen. Hala ere, laster jarri zen agerian irakasle parte-hartzaile gehienek terminologiaren ingurukoak zirela: nola eman euskarazko baliokideak, nola sortu terminologia, zer egin aldakortasuna dugunean, nola bermatu terminoen zuzentasuna, e.a. Hori aintzat hartuta, hurrengo deialdietarako programaren diseinua eta helburuak birplanteatzen aritu gara eta esan dezakegu gaur egun dugun formatua egonkortu samar dagoela.

datzalarik, TSE programaren helburu nagusietakoak dira unibertsitateko aditu-irakasleen erabilerak ikusgai egitea eta haien arteko sareak sortzea: erabiltzen diren baliabide linguistikoak partekatzea, eztabaidatzea eta finkapenerako pausoak ematea.

Gako-hitzak: terminologia erreala, erregistro espezializatuen garapena, terminologia-lanerako oinarri teoriko eta metodologikoak.

1. Terminologia Sareak Ehunduz programaren oinarria: *Garaterm*

Terminologia Sareak Ehunduz (aurrerantzean TSE) programak 2008an abian jarritako GARATERM (Zabala et al. 2008) egitasmo zabalean du bere oinarria. Proiektu horretan erregistro espezializatuen garapenean eta finkapenean laguntzeko beharren gaineko gogoeta egin zen. Alde batetik, xede profesional edota akademikoetarako hizkeren irakaskuntzari buruz edo, zehazkiago, euskaraz erregistro espezializatuen irakaskuntza esanguratsua bermatzeko beharrei buruz eta, bestetik, euskararen estandarizazio eta normalizazio prozesuaz, prozesu horren faseez eta bertan hizkuntzalariok dugun rola.

Gogoeta horietan ez ginen hutsetik abiatu: euskararen normalizazio-prozesuaren eta erregistro espezializatuen garapenearen inguruan hainbat lanetan (Zabala eta Elordui 2005, 2006; Elordui eta Zabala 2009) nabarmendu eta aldarrikatu da unibertsitateko adituen rola eta ekarpena: estandarizazio-prozesuan bereizi ohi diren faseetan (Ferguson 1968; Haugen 1983), adituen ekarpena ezinbestekoa da, estandar orokorraren ezarpenean ez ezik, hizkuntzaren elaborazioan edo garapen funtzionalean ere. Izan ere, erregistro espezializatuen elaborazioaren protagonistak adituak dira, eta ez dago zalantzarik erregistro espezializatuen garapen naturala goi-mailako alor akademikoetan gertatzen dela, eta beraz, terminologia erreala alor horietan aurkituko dugula. Hori da euskara EAEko hizkuntza ofizial bihurtu ondoren, hezkuntza-sisteman txertatzearen fruituetako bat. Izan ere, azken hamarkadan elebidunen hiztun kopuruak etengabe egin du gora, D eredia nagusitzen ari da Unibertsitateaz kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzetan, eta A, aldiz, gero eta pisu gutxiagoko eredia dugu. Horren ondorioz, 2012-2013 ikasturtean ikasleen % 62,67k aukeratu dute unibertsitaterako sarrera-proba euskaraz egitea, unibertsitatean ikasleen % 48,07k gradua (osorik edo atal bat) euskaraz ikastea erabaki dute, derrigorrezko kredituen % 82tik gora euskaraz eskaintzen dira, irakasleen % 47 elebidunak dira eta euskarazko eskuliburu, irakaskuntza-materialen eta tesien argitalpenak gora egin du.

GARATERM proiektuan egindako gogoetatik ondorioztatu genuen beharrezkoa zela bilgune estrategiko bat diseinatzea erregistro espezializatuen garapena, ikerketa eta didaktika uztartuko zituena. Alde batetik, erabat onartuta dago erregistro espezializatuen irakaskuntza esanguratsua izateko ezinbestekoa dela aurretik espezializatutako corpus adierazgarriak sortu eta horien karakterizazioa egitea (Biber 1988, 1994, 2006; Swales 1990, 2001, 2004; Parodi 2005, 2007; Cabré eta Gómez de Enterría 2006, besteak beste). Izan ere, arrakasta akademiko eta profesionala estuki lotuta dago jakintza-arloko eta diziplina profesionaleko berariazko testuak trebetasunez baliatzeko gaitasunarekin. Komunikazio-gaitasun espezializatu hori ikasleek ohiko prozesu akademikoetan jasotzen dute irakasleek eta testuek eskaintzen dizkieten inputaren bitartez. Euskara, ordea, normalizazio bidean dagoenez, ikasleek input aldakorra eta ezegonkorra jasotzen dute maiz eta, horregatik, beharrezkoa da erregistro

espezializatuen irakaskuntza arloko garapenari lotuta egotea. Erregistro akademikoen garapena unibertsitateko geletan gertatzen da batik bat, eta garapen hori ikertzeko ezinbestekoa da irakasleek erabiltzen dituzten testuen corpora biltzea (Zabala et al. 2013b). Nolanahi ere, erregistro espezializatuen ikerketarako beharrezkoa da baita adituen eta hizkuntzalarien arteko elkarlana ere. Adituak dira alorrez alorreko diskurtso espezializatuak sortzen dituztenak eta diskurtso horiek oinarritzen dituzten kontzeptu-eskemak ezagutzen dituztenak. Hizkuntzalarien lana izan behar da erregistro horiek ikertzea, aldakortasunaren karakterizazioa egitea eta aldakien finkapenerako harmonizazioa bideratzeko tresnak eta baliabideak garatzea. Izan ere, erabilera erreala kontuan hartu gabe egindako interbentzioek baliabide linguistiko horien garapena oztopatzeko arriskua izan lezakete (Zabala et al. 2013a).

Ikerketa, garapena eta irakaskuntza uztartzen dituen lan-ingurunea errealitate bihurtzea lortu da azken urteotan (<http://garaterm.ehu.es>) eta Zabala et al. (2013b) lanean deskribatu da. Erregistro akademikoak ikertzeko propio diseinatutako corpus bat (Garaterm corpora) diseinatu da eta corpus hori etengabe elikatzen joatea ahalbidetuko digun lan-ingurune dinamikoa garatu da. Ingurune horren diseinu eta inplementazioa TSE programarekin batera eraman da aurrera. Izan ere, programa horrek ahalbidetu digu erregistro akademikoen garapenaren protagonistekin zuzenean lan egitea eta unibertsitate-irakaskuntzan erabiltzen diren dokumentuak (apunteak, irakasgaien gidak, aurkezpenak, praktika-protokoloak, azterketak, e.a.) jasotzeko metodologia fintzen joatea. Jarraian datorren atalean azalduko ditugu TSE programaren helburuak sakonkiago, baina hitz gutxitan esan daiteke helburu nagusia dela euskararen erregistro akademikoen garapenari laguntzeko erregistro horiek ezagutzen hastea eta arloko beste adituei, hizkuntzalariei eta normalizazio-ekimenetan dihardutenei ezagutaraztea.

2. Euskararen erregistro akademikoen garapenean detektatutako zenbait arazo

TSE programak UPV/EHUn lantzen diren espezialitate-alorretako erregistro espezializatuen garapenean eta finkapenean laguntzeko helburua du. Helburu horri ekiterakoan, euskarazko erregistro espezializatuen garapenean dauden zenbait zailtasun eta oztopo detektatu eta aztertu ditugu eta zailtasun horiei aurre egiteko pausoak ematen hasi gara.

Arazoak eta oztopoak hiru alderditatik datozkigu. Batetik, irakasleek sortzen dituzten testuen kalitatea bermatzeko arazoak egon daitezke, irakasle batzuen hizkuntza-gaitasun orokorra dela eta. Bestetik, euskararen normalizazio ezetik datozen arazoak ditugu eta, bukatzeko, terminologia-lanerako erabiltzen den metodologiatik (edo metodologia ezetik) etor litezkeenak.

2.1. Irakasleen hizkuntza-gaitasun orokorra

Irakasleen hizkuntza-ekoizpenen kalitatea irakaskuntzaren kalitatearen funtsezko osagaia da. Izan ere, irakasleen hizkuntza-ekoizpenek (ahozkoek eta idatzizkoek) osatzen dute esparru akademikoan ikasleek jasotzen duten hizkuntza-inputaren zati handi bat eta ikasleek beren ikasketetan izango duten arrakasta neurri handian lotuta dago input hori ulertzeko eta bereganatzeko gaitasunarekin. Horrez gain, ikasleek erregistro akademikoak egokiro

erabiltzeko garatuko duten gaitasuna ere estuki lotuta dago irakasleek eskaintzen dieten hizkuntza-ereduarekin.

TSE programaren diseinua egiterakoan, 2008ko deialdian irakasleen testu-laginak aztertu genituen, eta kasu batzuetan irakasleen hizkuntza-gaitasunaren gabeziak detektatu genituen. Hartara, programaren barnean irakasleen testuen kalitatea hobetzeko saioak antolatzea erabaki zen. Halako saioetan parte hartzen duten irakasleak trebatzen dira ezagutzen testuen kalitatearen osagaiak zein diren, horietan dituzten arazoak detektatzen, eta arazoei aurre egiteko baliabideak ezagutzen eta nola erabili ikasten. Testuen kalitatearen barnean bi osagai nagusi bereizten ditugu: zuzentasuna eta egokitasuna. Testu akademikoetan zuzentasuna bermatzeak eskatzen du gramatikaren eta estandarraren arauak errespetatzea. Egokitasunarekin lotuta, aldiz, bi osagai bereizten dira: diskurtsoaren antolakuntza egokia eta erregistroaren araberako egokitasuna. Programan izan dugun esperientzian argi ikusi da testu akademiko denek ez dituztela zailtasun eta arazo mota berberak erakusten: arazoen testu-generoen araberako sistematikotasun bat antzeman daiteke. Testu-generoen eta arazo moten arteko erlazioak detektatzea eta jasotzea oso garrantzitsua da erregistro espezializatuen irakaskuntzarako eta UPV/EHUko fakultateetan eskaintzen diren *Euskararen Arauak eta Erabilerak* eta *Komunikazioa Euskaraz* irakasgaien edukiak egokitzen joateko. Izan ere, material horiek irakaskuntza esanguratsua izan dadin lagunduko digute, arloko zenbait testu genero sortzeko zailtasunei aurre egiteko ariketa espezifikoagoak sortzea ahalbidetzen baitigute. Arlo honetan ezinbestekoa da hizkuntzalarion eta arloko adituen arteko elkarlana.

2.2. Euskararen normalizazio ezagatiko arazoak

Euskara Unibertsitateko transmisio-hizkuntza izateak eragina du hizkuntza-normalizazioan, bai euskara batuaren ezarpenean eta bai alorrez alorreko erregistro espezializatuen garapenean eta finkapenean ere. Alabaina, euskara normalizatu gabe egotearen ondorio diren hainbat zailtasun detektatu ditugu testu akademikoetan: alde batetik, kode estandarraren ezegonkortasunak zalantzak sortzen dizkie hainbat irakasleri. Hau ez da harrizkekoa, estandarraren arau batzuk hedatzeko eta ezartzeko nahikoa denbora ez baita egon oraindik baina, gainera, estandarizazio-prozesua bera oraindik bukatu gabe dago. Horri gaineratu behar zaio euskararen erabilerak esparru akademikoetan oraindik bide laburra egin duela eta oso presentzia txikia duela arlo profesionalean. Izan ere, espezialitate-alorretako erregistroak garatzeko eta finkatzeko ez da denbora nahikoa egon eta, ondorioz, terminologia eta fraseologia falta da alor askotan eta aldakortasun asistematikoa normalizatutako hizkuntzetan baino handiagoa da (Elordui & Zabala 2005).

Erreferentziazko terminoak finkatzeko eta normalizatzeko astirik ezaz gain, adituen arteko komunikazio-sare faltak ere ez du laguntzen erregistro akademikoen garapenean eta finkapenean. Ikasle eta irakasleen arteko komunikazio-sareak arinak badira ere, ez dugu ia horrelako sarerik aurkitzen irakasleen artean. Jakina da jakintza espezializatua ingelesa erabiltzen duten nazioarteko diskurtso-komunitateetan garatzen eta finkatzen dela eta euskararen testuinguruan adituen arteko harremana ez dela batik bat euskaraz gertatzen. Bukatzeko, irakasleen testuak maiz ahozko testuak edo elaborazio gutxiko testu idatzi espontaneoak dira, eta horrek ere zailago egiten du erregistro akademikoen deskripzioa. Faktore horiek guztiak oztopo dira terminologiaren eta fraseologiaren zirkulazio eta

finkapenerako eta, horregatik, ezinbestekotzat jo zen irakasleen testuak ezagutu eta aztertu ez ezik irakasleen/adituen arteko sareak dinamizatzeko urratsak ematea.

Bukatzeko, ezin dugu ahaztu euskararen estandarizazio-prozesuarekin berarekin zerikusia duen beste arazo bat: euskararen kasuan hizkuntza orokorraren kodifikazioa erregistro espezializatuen elaborazioarekin gainezartzen delarik, maiz hizkuntza orokorraren estandarizazioa eta erregistro espezializatuen garapen funtzionalaren helburuak eta irizpideak ez direla behar bezain argi bereizten (Elordui eta Zabala 2009; Zabala et al 2013a).

Euskararen estandarizazio-prozesua 1968an abiatu zen, baina hiztegiaren kodifikazioa (Hiztegi Batua) ez zen hasi 1990ko hamarkadara arte (lehen edizioa 2000koa da). Bitartean, erregistro espezializatuen elaborazioak bidearen zati bat egina zuen, 1970 inguruan hasita (Etxebarria, 2002; Irazabalbeitia, 2002; Zabala 2005). Beste hitz batzuetan, hizkuntzaren hedapena erregistro formalak eskatzen zituzten eremuetara (hezkuntza, administrazioa eta komunikabideak) azkarrago gertatu zen hiztegi estandarren kodifikazioa baino. Beheko taulak laburbiltzen du prozesu bien garapen kronologikoa.

	HIZKUNTZA OROKORRAREN KODIFIKAZIOA	ERREGISTRO ESPEZIALIZATUEN ELABORAZIOA
1968	Hautapena (estandarra)	
1970	Kodifikazioa (Grafizazioa Gramatikalizazioa)	Zientzialariek eta ingeniariak euskara zientzian erabiltzen dute eta materialak sortzen dituzte
1972		Elhuyar taldea
1974		Elhuyar aldizkaria , UEU
1977		UZEI (terminologia sortzeko eta hedatzeko)
1980	Maileguak egokitzeko arauak/ hiztegi-sorkuntzarako arauen deskripzioa	
1982		EIMA batzordea: lehen eta bigarren hezkuntzarako material didaktikoen sorrera eta kontrol linguistikoa
1986		Euskalterm (UZEI) (terminologiaren hedapena/sorrera)
1987		UZEI Eusko Jaurlaritzak babestutako erakunde bihurtzen da
1990	Hiztegi estandarren kodifikazioaren hasiera (HB)	
2000	Hiztegi Batuaren lehen argitalpena	UPV/EHUren Euskara Zerbitzua: unibertsitaterako irakas-materialen sorrera eta kontrol linguistikoa
2001	Hiztegi Batuaren etengabeko elikatzea	Euskalterm → Euskal Terminologia Banku publiko bihurtzen da
2002		Terminologia Batzorde ofiziala

Estandarraren kodifikazioak eta erregistro espezializatuen elaborazioa ez ezik, prozesu horiek bultzatzen dituzten erakunde eta batzorde instituzionalak ere gainezartzen dira: maiz, antzeko ekimen eta pertsonak hartzen dute parte bi prozesuetan eta horren ondorioetako bat da batzuetan prozesu bien helburuak eta irizpideak ez bereiztea (Zabala et al. 2013a). Bestalde, terminologiaren gaineko interbentzio puntuala egiten da maiz eta faltan botatzen da terminologia-lan sistematikoa. Batetik, eguneroko komunikazio akademikoan erabiltzen den terminologia erreala ezagutu gabe egiten da interbentzioa, eta, bestetik, terminologia ofizialaren eta Hiztegi Batuaren erabakiak ezarpenean oinarritzen da. Hartara, Hiztegi Batuaren erabakiak zuzenen estrapolatzen dira hiztegi eta datu-base terminologikoetara. Jardun horien ondorio dira Zabala et al. (2013a) lanean deskribatu diren zenbait adibide:

- Adituek erabiltzen dituzten hainbat termino-aldaki ez daude jasota Euskalterm datu-base terminologikoan. Adibidez, *muskulu* jasota dago baina, adituek hori ere erabiltzen badute ere, *gihar* aldaki lexikoa ez dago jasota.
- Hiztegi Batuaren erabakiak oro har aplikatzen zaizkio Euskaltermen biltzen den terminologiari eta gehienetan erabilarazten zaizkie unibertsitateko adituei beren argitalpenetan kontrol linguistikoa egiten zaienean. Maiz aipatutako adibidea da *liseriketa* terminoarena, harekin erlazionatutako terminoen paradigma osoan ondorioak izan dituena.
- Balio espezializatua aktibatu duten hizkuntza orokorreko sarrera lexikoak batzuetan zuzentzen dira irizpide pragmatiko edo diskurtsiborik aztertu gabe. Horrek terminologiaren garapenerako beharrezkoa den berrikuntzaren blokeoa eta oztopatzea ekar lezake. Honen adibidea da hainbat lanetan aipatu den *adierazi* eta *adierazpen* hiztegi elementuek genetikaren alorrean izan duten balio espezializatuaren aktibazioaren kasua.
- Hiztegi Batua ez da bukatutako proiektu bat eta batzuetan zuzenak ez diren aldakiak jasotzen ditu. Aldiz, erabileran existitzen diren zenbait aldaki zuzen ez daude oraindik jasota. Adibidez, Hiztegi Batuan jasota dago forma eta esanahiaren aldetik okerra den *konjokatu* aditza eta zuzena(goa)k diren *konjugatu* eta *uztartu* aditzak, aldiz, ez daude jasota.

Hizkuntza orokorraren estandarizazioari eta erregistro espezializatuaren elaborazioari dagozkien irizpideak eta helburuak nahastuta eta uniformizatuta ageri dira maiz testu akademikoaren gainean egiten den kontrol linguistikoa. Gogoratu behar dugu estandar orokorraren kodifikazioaren helburua dela aldakortasun dialektala harmonizatzea eta estandarren elaborazioak, eta horren barruan erregistro espezializatuaren garapenak, ezinbestekoa dutela aldakortasun funtzionalaren areagotzea.

2.3. Terminologia-lanerako oinarri teoriko- metodologikoak

Orain arte euskararen erregistro espezializatuaren garapena zailtzen duten bi faktore azaldu ditugu: irakasleen hizkuntza-gaitasunaren hutsuneak eta euskararen normalizazio eza. Zabala et al. (2013a) lanean terminologia-lanerako zenbait onarpen teoriko-metodologiko ere oztopotzat hartzen dira. Izan ere, azken bi hamarkadetan erregistro espezializatuaren eta terminologiaren ikerketan aurrerapauso handiak eman badira ere, terminologia-lan praktikoak terminologiaren teoria klasikoaren oinarriari eusten die maiz oraindik ere.

Terminologiaren Teoria Klasikoan (Terminologiaren Teoria Orokorra, Wüster 1979) terminologia-lanaren helburua nazioarteko estandarizazioa zen. Unibokotasuna eta monosemia hartzen ziren terminoen bereizgarritzat eta onartzen zen kontzeptua izendapenaren aurretik zegoela. Unitate terminologikotik haratagoko diskurtsoaren inguruko interesik ez zegoen, onartzen baitzen terminologia ez zela hizkuntza naturala. Bukatzeko, ikuspegi honen arabera terminoak ikuspegi sinkronikotik aztertu behar ziren.

Ikuspegi klasiko horri hainbat alderditatik egin zaizkio kritikak: gizartearen ikuspegitik terminologiaren funtzio komunikatiboak azpimarratu dira eta garrantzi handiagoa eman zaio terminoek gizartean duten ezarpenari estandarizazioari baino. Izan ere, normalizazio terminoa maiz estandarizazioarekin nahastu dela aldarrikatu da. Teoria klasikoari egindako kritiketatik

hiru ildo teoriko berri sortu dira 90eko hamarkadan: Sozioterminologia (Gaudin 1993; Boulanger 1991), Teoria Soziokognitiboa (Temmerman 2000) eta Terminologiaren Teoria Komunikatiboa (Cabr e 1999, 2001). Ikuspegi berri horiek oinarri berriak ezarri dituzte terminologia-lanerako:

- Terminologia hizkuntza naturala da: hiztegi-elementuen balio espezializatua aktibatzen da komunikazio espezializatuan erabiltzen direnean.
- Kontzeptuak ez dira existitzen izaki isolatu gisa, testuei esker existitzen dira.
- Unibokotasuna eta monosemia idealizazioak dira eta, honen ondorioz, interesa aldakortasunaren azterketan datza.
- Kontzeptuak eta terminologia aldatuz doaz eta horrek terminoen ikerketa diakronikoa eskatzen du.

Ikuspegi berri horiek terminologia aztertzeke eta lantzeke metodologia berria eskatzen dute:

- Terminologia aztertzeke, terminoek testuetan dituzten agerpenetatik abiatu behar gara, alegia, erabileraren deskripzioa da lehendabiziko urratsa.
- Terminoak askotariko komunikazio-egoeretan erabiltzen dira eta aniztasun horrekin lotutako aldakortasuna aintzat hartu behar dugu.
- Aldakortasuna aintzat hartzearekin batera, azterketa diakronikoak garrantzia hartzen du, terminoak denboran zehar aldatzen direla onartzen baita. Soilik deskriptiotik abiatuta terminologiaren erabilera ezagutuz gero egin daiteke interbentzioa, eta interbentzio horrek aldaki bakar baten arautzea baino, aldakien harmonizazioa izango du jomugan.

TSE programa terminologia-lanerako hatsarre teoriko-metodologiko horietan oinarritzen da: gure interesgunea da aztertzea adituek erabiltzen duten terminologia erreala zer-nolakoa den, nola sortzen den eta nola aldatzen den. Beraz, arlo honetan ikerketa egin ahal izateke ezinbestekoa da adituek erabiltzen dituzten testuak ongi antolatutako corpus batean jasotzea. Garaterm proiektuei eta TSE programari esker helburu hori lortzeke lehen urratsak eman ditugu (ikus Zabala et al. 2013b).

3. Terminologia Sareak Ehunduz programa: helburuak, diseinua eta lorpenak

TSE programak UPV/EHUn lantzen diren espezialitate-alorretako erregistroen garapenean eta finkapenean laguntzea du helburu, 2. atalean deskribatu diren arazoak eta oztopoak gainditzeko pausoak emateari begira.

Arazoei aurre egiteko pauso garrantzitsuena izan da irakasleek erabiltzen dituzten testuak jasotzeke eta horietan erabiltzen den terminologia deskribatzeko metodologia eta tresnak garatzea. Alde batetik, gure ardura den espezialitate-hizkeren irakaskuntza esanguratsua izan dadin, ezinbestekoa da aurretik testu horiez osaturik dauden corpus adierazgarriak sortzea eta horien karakterizazioa egitea. Bestetik, terminologia-lana irakasleek sortutako testuen agerpenetatik abiatzen dugu, hor aurkitzen baitugu terminologia erreala, beste edozein hizkuntzatan bezala, aldakortasun formala eta kontzeptuala azaltzen duena. Aldakortasunaren

karakterizazioa funtsezkoa da, hain zuzen, terminologia-plangintzan. Aldakortasun sistematikoa deskribatu behar dugu, (aldakiak egoera pragmatiko desberdinetan gauzatzen diren aukerak izaten baitira maiz). Bestalde, terminoen denboran zeharreko eboluzioa aztertu beharko da eta horrek terminoen ikuspegi dinamikoa eta azterketa diakronikoa eskatuko du. Bukatzeko, irakasleen arteko sare arinik eza ere konpentsatu nahi da, nolabait, adituek komunikazio-akademikoan erabiltzen dituzten testuak eta terminologia ikusgai eginez. Irakasleen erabilera errealak beste adituentzat, hizkuntzalariontzat eta normalizazio-eragileentzat ikusgai eginez, euskara erregistro akademikoen garapenaren diagnostikoa egiteko eta finkapenean laguntzeko pausoak eman nahi ditugu. Izan ere, biziberritze eta elaborazio fasean dagoen euskara bezalako hizkuntza gutxitu baten kasuan erabilera errealari ezikusia egiteak arriskuan jar lezake adituen diskurtso-komunitateetan gertatzen ari den hizkuntzaren garapen eta autorregulazio naturala (Zabala et al. 2013a).

TSE programa 2008an jarri zen abian. Lehen urteetako prestakuntza hutsaren inguruan diseinatutako ekimenetatik nabariki aldendu da programa. Izan ere, prestakuntza hutsean geratu ordez, euskara akademikoaren garapenerako eman beharreko pausoak eman eta behar berrietara egokitu da: azken urteetan helburua irakasleen arteko sareak sortzea eta dinamizatzea izan da eta baliabide linguistikoak partekatzea, eztabaidatzea eta elkarlanean finkatzen joatea.

Programaren lan-unitatea irakasle batek (edo irakasle talde batek) ematen duen titulazio edo gradu bateko irakasgai bat da. Lanari dagokionez, bi atal nagusi eta desberdin ditu gaur egun: lehen atalaren helburua da irakaskuntza-materialen kalitate linguistikoa hobetzea eta materialetan egindako hizkuntzaren erabilera normalizazio-ekimenetarako ikusgarri egitea. Beste hitz batzuetan, irakasleak aukeratu duen irakasgaiko materialak programan zehar landutako irizpideen arabera hobetu behar ditu. Bigarren atalak norberak erabiltzen duen terminologia erreal lantzea eta normalizazio-ekimenetarako ikusgarri egitea eskatzen du. Hori lortzeko prozesua hurrengoa da: irakasleek aukeratu duten irakasgaiaren dokumentu guztiak igo behar dituzte Garaterm lan-ingurunera (Zabala et al. 2013b). Dokumentuak askotarikoak izaten dira: apunteak, ikasleentzako gidak, praktika-protokoloak, azterketak, e.a. Testu horiek, prozesatu ondoren, kontsultagai jartzen dira Garaterm corpusean eta, bestalde, termino-hautagaiak erauzten dira Erauzterm (Alegria et al. 2004) termino-erauzle erdiautomatikoaren bidez. Irakasleek termino-hautagaien zerrenda balioztatu behar dute, beraiek baitira arloan adituak eta arloko kontzeptu-sistema ezagutzen dutenak. Helburua da irakasgaiaren erabilitako terminoen glosategi eleaniztunak egitea, euskarazko terminoen beste hizkuntza batzuen ordainak bilduz (gaztelaniazkoak eta ingelesezkoak gutxienez). Erabiltzen den terminologiaren irudi bat lor dezakegu glosategien bidez, baina aldakortasuna antzemateko eta kudeatzeko beste pauso batzuk eman ditugu, glosategiak TZOS (*Terminologia Zerbitzurako Online Sistema*) (Arregi et al. 2010) deritzon aplikazioan kargatuz, irakasleen testuetatik ateratako terminologia bildu eta kontsultagai jartzeko, eta aldakortasuna detektatu eta kudeatzeko.

TSE programa eskaini den urteetan hainbat helburu lortu ditugu: alde batetik, TSE eskaini den zenbait ikastegitan adituen arteko sare edo lan-talde egonkor eta dinamikoak sortu dira. Parte-hartzaileen artean hizkuntzaren kalitatearen inguruan kalitate hori zaintzeko autonomia areagotzea lortu da. Irakasleak testuen kalitatearen osagaiak zein diren identifikatzen trebatzen dira, ondoren beraiek irakaskuntzan erabiltzen dituzten testuetan hobekuntzak egin ahal izateko. Orain arteko esperientzian ikusi dugu irakasle askok txertatu dutela hizkuntza-

kalitateari buruzko kezka beren eguneroko zereginetan. Hori garrantzitsua da, hizkuntza-kalitatea zaintzea ezinbestekoa baita irakaskuntza-ikaskuntza jarduera kalitatezkoa izan dadin. Izan ere, TSE programaren antolakuntzari dagokionez, urratsak eman dira kalitate linguistikoa irakaskuntzaren kalitatearekin lotzeko eta TSE programan parte hartzea aitortu egiten da Kalitate eta Hezkuntza Berrikuntzako Errektoreordetzaren *Ehunduz* eta *Docentiaz* programetan. Horrez gain, programak onarpen instituzionala lortu du.

Lorpenen artean UPV/EHUn lantzen diren espezialitate-alorretako erregistro espezializatuen garapenerako eta finkapenerako ezinbesteko pausoak ditugu hurrengoak: 200 irakasle baino gehiagoren parte-hartzea, 8 milioi hitz inguruko corpus akademikoa osatzea eta 80 bat glosategi eleaniztun egitea eta TZOSen kontsultagai jartzea. Horrekin guztiarekin alor espezializatueta hizkera eta terminologia jasotzea, aztertzea, eztabaidatzea eta kontsultagai jartzea lortzen ari gara. Bestalde, mintegi eta foroan bitartez adituen kezkek eta interesak ezagutzeko aukera daukagu.

Programaren diseinua eta urtez urte programaren hobekuntzarako egin dugun gogoeta terminologia-lanerako eta aldakortasunaren kudeaketarako mundu zientifiko-akademikoan onartzen diren irizpideetan errotu ditugu. Hori oso garrantzitsua da euskarari eragiten dion edozein alorretan: hizkuntza-politikan hartu behar diren erabakiak eta bultzatu behar diren ekimenak ikuspegi zientifiko eta akademikotik ondo ikertutakoak eta justifikatuak izan behar dira gure iritziz.

Bukatzeko, tresnak eta baliabideak garatzea eta integratzea lortu dugu: Garaterm lan-ingurunea, Erauzterm eta TZOS. Hori guztia lana diziplinartekotasunean eta modu sinergikoan eginda lortu dugu. TSE programan, alorrez alorreko adituak, hizkuntzalariak eta informatikariak elkarlanean aritu gara.

4. Ondorioak

Ugarteburu Terminologia Jardunaldietako 2013ko aztergaia izan da “terminologia naturala eta terminologia planifikatua euskararen normalizazioari begira”. Jardunaldien helburua izan da euskararen normalizazioan terminologia garatzeko eta finkatzeko dauden erroka, oztopo, baliabide eta tresnen inguruko gogoeta egitea. Lan honetan UPV/EHUn lantzen diren espezialitate-alorretako erregistro espezializatuen garapenean eta finkapenean laguntzea helburu duen TSE programa aurkeztu dugu. Helburu hori lortzeko urratsak eman dira irakasleen arteko sareak sortuz eta dinamizatuz, edo zehatzago, irakasleek erabiltzen dituzten baliabide linguistikoak partekatzeko, eztabaidatzeko eta elkarlanean finkatzen joateko tresnak eta baliabideak garatuz. Lanean jaso ditugun zenbait ondorio dira hurrengoak:

- Unibertsitatean erabiltzen den terminologiaren normalizazioari lagunduko badiogu, terminologiaren teoria berrien oinarri teoriko-metodologikoetatik abiatu behar gara. Horretarako, normalizazioaren jomugako hizkuntza-ereduak ezin du izan estatikoa edo unibokoa, normalizatutzat hartzen ditugun hizkuntzetan ere ez baita halakoa.
- TSE programak terminologia erreala ikusgai egitea du helburu eta behetik gorako ekimena da. Funtsezko deritzogu normalizazio-ekimenetan erabilera erreala kontuan hartzea, garapen eta autorregulazio naturalari lagunduko badiogu edo, behintzat, oztopatzeko arriskuak saihestuko baditugu.

- Sortutako sareak adituen arteko komunikazio-sare falta konpentsatzeko urrats bat dira eta terminologia naturalaren zirkulazioari eta finkapenari lagundu nahi diote.
- Diziplinartekotasuna beharrezkoa da: adituen, hizkuntzalarien eta informatikarien arteko elkarlana.
- Komenigarria litzateke TSE ekimena UPV/EHUk euskararen inguruan eskaintzen dituen tailer eta kurtsoekin batera diseinatzea: ekimen desberdinek egiten dituzten ekarpenak bereiztea eta irakasleen behar eta interesen araberako eskaintza koordinatua egitea.

5. Bibliografia

- ALEGRIA, I.; GURRUTXAGA, A.; LIZASO, P.; SARALEGI, X.; UGARTETXEA, S.; URIZAR, R. (2004): "An Xml-Based Term Extraction Tool for Basque", *4th International Conference on Language Resources and Evaluations (LREC)*, Lisbon.
- ARREGI, X.; ARRUARTE, A.; ARTOLA, X.; LERSUNDI, M.; SANTANDER, G.; UMBELLINA, J. (2010): "TZOS: Terminologia Zerbitzurako Online Sistema", in ALBERDI, X. & SALABURU, P. (argit.): *Ugarteburu Terminologia Jardunaldiak: euskararen garapena esparru akademikoetan*, Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua, 136-153 or.
- BIBER, D. (1988): *Variation across speech and writing*, Cambridge: Cambridge University Press.
- BIBER, D. (1994): "Using register-diversified corpora for general language studies", in ARMSTRON, S (argit.): *Using large corpora*, Cambridge: The MIT Press, 180-201 or.
- BIBER, D. (2006): *University Language. A corpus based study of spoken and written registers*, Amsterdam: John Benjamins Publishing Company.
- BOULANGER, J. C. (1991): "Une lecture socio culturelle de la terminologie", *Cahiers de linguistique sociale*, 18, 13-30 or.
- CABRÉ, M. T. (1999): "Elementos para una teoría de la terminología: hacia un paradigma alternativo", in CABRÉ, M. T. (argit.): *La terminología. Representación y comunicación*, Barcelona: Institut Universitari de Lingüística Aplicada. Universitat Pompeu Fabra, 69-92 or.
- CABRÉ, M. T. (2001): "Sumario de principios que Configuran la nueva propuesta teórica", in CABRÉ, M. T. & FELIU, J. (argit.): *La terminología científico-técnica*, Barcelona: Institut Universitari de Lingüística Aplicada, Universitat Pompeu Fabra.
- CABRÉ, M. T.; GOMEZ DE ENTERRÍA, J. (2006): *La enseñanza de los lenguajes de especialidad. La simulación global*, Madrid: Gredos.
- ELORDUI, A.; ZABALA, I. (2005): "Terminological Variation in Basque: Analysis of Texts of Different Degrees of Specialization", *Sky Journal of Linguistics*, 18, 71-92.
- ELORDUI, A.; ZABALA, I. (2009): "Euskara Batuaren garapen lexiko-diskurtsiboa: batasunetik aniztasun funtzionalera", in ETXEPARE, R., GÓMEZ, R. & LAKARRA, J.A. (argit.): *A Festschrift for Bernard Oyharçabal (ASJU)*, XLIII:1-2 (2009), Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 231-246 or.
- ETXEBARRIA J.R. (2002): "Euskal prosa zientifikoaren historiaren inguruan", *Hegats*, 30: 63-75.
- FERGUSON, C. (1968): "Language Development", in J. Fishman, C. Ferguson & J. Das Gupta (argit.): *Language Problems of Developing Nations*, New York: Wiley.
- GAUDIN, F. (1993): *Socioterminologie: des problèmes sémantiques aux pratiques institutionnelles*, Rouen: Université de Rouen, Publications de l'Université de Rouen, 182.

- HAUGEN, E. (1983): "The Implementation of Corpus Planning: Theory and Practice", in J. COBARRUBIAS & J.A. FISHMAN (argit.), *Progress in Language Planning International perspective*, Berlin: Mouton, 269-290 or.
- IRAZABALBEITIA I. (2002): "Zientzia komunikazioa Euskal Herrian: hurbilketa modukoa", *Hegats*, 30: 47-75.
- PARODI, G. (2005): *Discurso especializado e instituciones formadoras*, Valparaiso: Ediciones Universitarias de Valparaiso, Pontificia Universidad Católica de Valparaiso.
- PARODI, G. (2007): "El discurso especializado escrito en el ámbito universitario y profesional: Constitución de un corpus de estudio", *Revista Signos*, 40, 63, 147-178 or.
- SWALES, J. (1990): *Genge analysis. English in academic and research setting*, Cambridge: Cambridge University Press.
- SWALES, J. (2001): "Metatalk in American academic talk", *Journal of English Linguistics*, 29: 34-54 or.
- SWALES, J. (2004): *Research Genres: exploration and Applications*, Cambridge: Cambridge University Press.
- TEMMERMAN, R. (2000): *Towards New Ways of Terminology Description. The sociocognitive Approach*, Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins.
- WÜSTER E. (1998 [1979]): *Introducción a la teoría general de la terminología y a la lexicografía terminológica*, M.T. CABRÉ (argit.), Barcelona: Institut Universitari de Lingüística Aplicada, Universitat Pompeu Fabra. [itzulpena. Jatorrizko liburua: Wüster E, (1979) *Einführung in die Allgemeine Terminologielehre und Terminologische Lexikographie*. 2 Vol. Viena].
- ZABALA, I. eta ELORDUI, A. (2005): "Euskara zientifikoaren normalizazioa: hizkuntzalarien ekarpena", in Mendebalde Kultur Elkartea: *Euskera zientifiko-teknikoa: normalizaziotik homologaziora*, Bilbo, 15-53.
- ZABALA, I. eta ELORDUI, A. (2006): "Specialized Discourse and the Linguistic System of Basque", in FERNANDEZ, B. & LAKA, I. (argit.): *Andolin gogoan. Essays in honour of Professor Eguzkitza*, Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua, 895- 914 or.
- ZABALA, I.; AIERBE, A.; ALDEZABAL, I.; ARREGI, X.; ARRIOLA, J. M.; ELORDUI, A.; ELOSEGI, A.; ELOSEGI, K.; EZEIZA, J.; GARCIA, J.; GARCIA, I.; LERSUNDI, M.; SAN MARTIN, I.; UGARTEBURU, I. (2008): "GARATERM: Diskurtso akademiko-profesionalaren didaktika eta garapena uztartzeko tresna informatikoen diseinu eta integrazioa helburu duen proiektua", in SALABURU, P. & UGARTEBURU, I. (argit.): *Espezialitate Hizkerak eta Terminologia III: Espezialitate-hizkeren didaktika eta komunikazioa*, Leioa: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua: 211-219 or.
- ZABALA, I.; SAN MARTIN, I.; LERSUNDI, M.; ELORDUI, A. (2011): "Graduate Teaching of Specialized Registers in a Language in the Normalization Process: Towards a comprehensive and Interdisciplinary Treatment of Academic Basque", in MARUENDA-BATALLER, S. & CLAVEL-ARROITIA, B. (argit.): *Multiple Voices in Academic and Professional Discourse: Current Issues in Specialised Language Research, Teaching and New Technologies*, Newcastle: Cambridge Scholars Publishing, 208-218 or.
- ZABALA, I.; SAN MARTIN, I.; LERSUNDI, M. (2013a): "Linguistic and sociolinguistic factors that influence the detection, implantation and circulation of natural terminology in academic uses of Basque", in DURY, P.; DE HOYOS, J.C.; MAKRI-MOREL, J.; MANIEZ, F.; RENNER, V. & VILLAR DÍAZ, M. B. (argit.): *La néologie en langue de spécialité. Neology in specialized languages. La neología en lengua de especialidad*, Lyon: Publications du CRTT.

ZABALA, I.; LERSUNDI, M.; LETURIA, I.; MANTEROLA, I. & SANTANDER, G. (2013b): “GARATERM: euskararen erregistro akademikoen garapenaren ikerketarako lan-ingurunea”, in ALBERDI, X. & SALABURU, P. (argit.): *Ugarteburu Terminologia Jardunaldiak (V): Terminologia naturala eta terminologia planifikatua euskararen normalizazioari begira*, Leioa: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.

[AURKIBIDEA](#)